

sustrai

112

segundo
semestre
2019eko
2. seihilekoa

25
urteurrena
aniversario



Euskal
Okela

Carne de Vacuno
del País Vasco



Directora

Nerea Haig · sustrai@ej-gv.es

Colaboran en este número

M.ª Elena Potes

R. S.

A. R.

UPV/EHU

Hazi Kontsultoria

A. Cantero

Fotografía

Mikel Arrazola

(Archivo 'Argazki' E.J.-G.V.)

argazki@ej-gv.es

Neiker-Tecnalia

Azti-Tecnalia

Conrado Tejado

R. S.

Nerea Haig

Colectivo Nirea

B. C. C.

Fotografía de portada

Hazi Fundazioa

Colaboraciones gráficas y humor

Iñaki Cerrajería

Traducciones

IZO, Itzutzaila Zerbitzu Ofiziala

Edita

Eusko Jaurlaritzaren

Donostia-San Sebastián 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Diseño y maquetación

enza © · enza.ed@gmail.com

Impresión

Euskopi S. L.

Depósito Legal

VI-313-1985

ISSN 0123-33-0X

Suscripciones gratuitas

Revista Sustrai · sustrai@ej-gv.es

Departamento de Desarrollo

Económico e Infraestructuras

c/ Donostia-San Sebastián 1

01010 Vitoria-Gasteiz

www.euskadi.net/sustrai

Publicación gratuita. Prohibida su venta. Sustrai no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores. Sólo se permite la reproducción de los artículos y fotografías citando la fuente y el autor, y siempre que éste haya dado su consentimiento.

Impreso en papel libre de cloro

Kloro gabeko paperean inprimatuta

Ekoizleen gorazarrez

Homenaje a los productores

Sustrairen ale honetan, azken sei hilabeteotan gure bidean jarri ditugun mugarri garrantzitsu batzuk dakartzagu; Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza ez baita motelago ibili, nahiz eta hauteskunde bat bestearen atzetik etorri zaigun eta horrek, jakina, ederki baldintzatzen duen ekonomiaren, gizartearen eta politikaren jarduna.

Jarritako mugarriez ari garela, aipa ditzagun -meretzi baitu- sektorea aintzatesteko izan ditugun ekitaldiak; sektorea bera, eta protagonistak, ekoizleak. Euskal Okelaren 25. urteurrenaren ospakizuna izan dugu berriki antolatua. Berme-marka hori garatzen lagundu duten guztien indarra eta ahalegina eskertu zen, proiektuan zuzen-zuzenean parte hartu duten abeltzain eta harakinei omen egiteaz batera.

Ezin ahaztu euskal gizarteak zein omenaldi hunkigarria egin zien World Cheese Awards 2019 nazioarteko lehiaketatik saria eskuetan itzuli ziren Idiazabal JD eta Artzai Gazta gazte. Euskal artzainei aitortza egiteko balio izan zuen, egunero-egunero ari baitira lanean kalitate eta balio gastronomiko handiko gazta apartak egiten, eta, betiko moduan lan eginez, gure zaharren tradizio horri bizirik eusten baitiote, ingurumena errespetatuz eta, aldi berean, modernizazioari eta lehiakortasunari bizkarra eman gabe.

Sustrai honetan aipatzen den beste gai bat mahastizaintza-ardogintza da. Eusko Jaurlaritza beldurrik gabe ari zaio laguntzen erakundeetan eta finantzetan, dakarkigun laburpenean ikusten den moduan. Oso sektore garrantzitsua da euskal ekonomian eta gizartearen, baina mehatxupean da, Brexitak eragindako noraeza eta AEBtako muga-zergak direla-eta. Balantza-aldia datorrenean oinak sendo eta burua arbi behar dira, bidea galduko ez bada. Eusko Jaurlaritza hortxe egongo da, gure ardoen balio-katean diharduten guztiekin eskuz esku.

Este número de Sustrai recoge importantes hitos acontecidos a lo largo de los últimos seis meses, porque la actividad de la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria no ha bajado de ritmo a pesar de que las sucesivas citas electorales han condicionado ciertamente la vida económica, social y política.

Entre esos hitos cabe destacar diversos actos de reconocimiento y homenaje al sector y sus protagonistas, los productores. El más reciente de ellos fue la celebración de 25 aniversario de Euskal Okela. En este evento se agradeció el esfuerzo y la entrega de las personas que han contribuido al desarrollo de esta marca de garantía y se rindió homenaje a ganaderos/as y carniceros/as que han participado de manera activa en el proyecto.

También fue emocionante el acto de reconocimiento que a sociedad vasca ofreció a los quesos de la D.O. Idiazabal y Artzai Gazta premiados en el certamen internacional World Cheese Awards 2019. El acto fue un tributo a la labor de los pastores y pastoras vascas que cada día se esfuerzan por hacer sabrosos quesos de calidad y de gran valor gastronómico, y que con su trabajo artesanal mantienen viva una tradición ancestral respetuosa con el medio ambiente, sin dejar de lado la modernización y la competitividad del sector.

Asimismo, las páginas de este número de Sustrai también recogen un amplio resumen del decidido apoyo institucional y financiero que el Gobierno Vasco está destinando al sector vitivinícola, muy importante dentro de la economía y sociedad vasca, que se está viendo amenazado por la incertidumbre provocada por el Brexit y los aranceles de EE.UU. Momentos de zozobra que exigen mano firme e ideas claras para no perder el rumbo y en los que el ejecutivo autónomo trabajará mano a mano con todos los integrantes de la cadena de valor de nuestros vinos.



sustrai

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA ALDIZKARIA REVISTA AGROPESQUERA

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

112

segundo
semestre
2019eko
2. seihilekoa



64



47



47 KOMIKIA CÓMIC
Iñaki Cerrajería



43



45



42



50



21



12

BERRIAK NOTICIAS

- 4 Bioekonomiaren Euskal Aliantza sortu da, Euskadiko ekonomia dibertsifikatzeko eta garapen jasangarrian laguntzeko
testua N. T.
- 12 Eusko Labela duen abelgorri-okelak 25 Urte bete ditu
testua H. F.
- 40 Antxoa gazteen populazioak behera egin du Bizkaiko Golkoan, baina oraindik maila onean dago
testua A. T.
- 43 Idiazabal eta Artzai-Gaztako 63 gazta munduko onenen artean
testua A. G.

IKERKETAK INVESTIGACIÓN

- 48 SheepNet-en arabera, nutrizioa, haurdunaldiaren diagnostikoa eta kontrola eta abortuen prebentzioa dira ardi aziendaren produktibitatea hobetzeko eginkizun nagusiak
testua N. T.
- 50 Proyecto Life Oreka Mendian: aunando conservación y aprovechamiento en los pastos montanos
texto Ana G. y Amelia O. · Hazi Fundazioa
- 53 Neiker-Tecnaliak euskarazko dibulgazioa sarituko du CAF-Elhuyar sarietan
testua N. T.

BASOGINTZA FORESTAL

- 54 El aprovechamiento energético de los montes vascos
texto Alejandro Cantero, Hazi Fundazioa

IBILBIDEAK RECORRIDOS

- 58 Ascenso al Toloño
texto Alejandro Cantero, Hazi Fundazioa

62 ORNODUNAK VERTEBRADOS

- 64 ERREZETA RECETA



Bioekonomiaren Euskal Aliantza sortu da, Euskadiko ekonomia dibertsifikatzeko eta garapen jasangarrian laguntzeko

testua eta argazkia N. T.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak Bioekonomiaren Euskal Aliantza eratzea bultzatu du, hasiera batean 10 enpresa pribaturen eta erakunde publiko-
etako ordezkarien partaidetzaz: SPRI taldea, Energiaren Euskal Erakundea, Neiker Teknologia Zentroa eta Hazi Fundazioa; azken horrek hartuko ditu Idazkaritza Teknikoko eginkizunak.

Aliantza hori garatzeko bidean edo merkatuan bioekonomia-proiektuak dituzten enpresa eta eragile guztiak integratzeko asmoz abiatu da; asmoa da interesa duten enpresa/eragileak Europan gero eta hedatuago dagoen ekonomia-eredu horretan lankidetzan aritzea eta hura bistaratzeko aktiboki lagundu eta parte hartzea; izan ere, eredu horrek ahalmen handia du, dudarik gabe, Euskadiko ekonomia dibertsifikatzeko orduan.

• Helburua
BEAren helburua izango da enpresa-eragileen sare bat sortzea, biologia-baliabideetan oinarritutako produktuak sortzen dituen ekonomia-eredu hau sendotzen dutenak, eta erakunde publikoen, teknologia-zentroen eta enpresen arteko lankidetzara egituratu bat ezartzea, ekonomia-produkzio eta -sorkuntza modu hori hazteko.

• Eraketa
BEA 2020ko urtariletik aurrera bat egiten duten kide eta enpresak bilduko ditu bere baitan. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak zuzenduko du, eta tokiko zein nazioarteko profesionalek osatutako aholkularitza-batzorde bat izango du.

• 10 proiektu erreal dituzten hasierako 10 enpresak
BEA eratzeke hautatutako enpresak oso askotariko sektoreetatik datoz, adibideez, ibilgailu-industria, energia, eraikuntza, ehungintzaren industria eta kosmetika, besteak beste. Hasieran enpresa horiek hor egotea babesten duten bioekonomia-proiektuak zur-baliabidean oinarritzen dira nagusiki, nahiz eta kasu batzuetan beste bio baliabide mota batean oinarritzen diren produktuak dituzten.

BIOTERMIAK “Bioerregaiak berokuntza eta bero industrialeko instalazioetan garatzeko plataforma da. Basogintzako produktoreak eta zuraren eraldatzailak energia-zerbitzuak ematen dituzten enprekin eta herri-administrazioekin integrazten ditugu, hornidura-berme osoa eta bioerregaien kalitatea eskaintzen dituen sare logistikoa lortzeko”.

CIKAUTXO “CIKAUTXOn, lehengai polimeriko jasangarriagoak eta ingurumenarekin begirune handiagokoak bilatzen dituzten ekimenak bultzatzen ari gara, bi helbururi begira: petrolioari lotutako osagaiak murriztea, eta gure konposatueta birziklatutako biomaterialak gehitzea. Azken urteotan, kautxua birziklatzeko hainbat teknologia garatu ditugu, kautxua desbultkanizatzeke prozesu berritzaileen bitartez; izan ere, material hori lehengai birziklaezintzat jotzen da”.

EGOIN “Gure enpresak zurezko soluzio estruktural berritzaileak diseinatu, ingeniartzat jorratu, fabrikatu eta muntatu egiten ditu bertako km 0-ko lehengaietan oinarrituz. Zuraren aldeko apustua egin dugu XXI. mendean eraikuntzaren materiala izan dadin, ekologikoa delako eta karbono-aztarna murrizten duela, XX. mendeko ohiko eraikuntzarekin konparatuz gero. Indarrean ditugun proiektuen artean, babes ofizialeko bizitegi-erakin handiena egiten ari garela nabarmendu behar da, Cornellá de Llobregaten, Bartzelonan: 5 solairu eta 85 etxebizitza ditu; horretarako, ziurtapena duten eta birlandatutako 2.100 metro kubo basoren zura erabiliko da guztira”.

GLOBAL EFFICIENCY ARANGUREN-GLEFARAN “Ekonomia zirkularra eta bioekonomia ardatz hartzen dituen enpresa bat gara, Euskadiko kapitalduna, eta baso-biomasa kudeatzera eta energia berriztagarria produzitzera bideratua, biotxarraren erabilera berritzaileen inguruko proiektu bat garatzen duena. Mikroorganismo aberastutako biotxarrak animalien eta landareen nutrizioa hobetzen du, eta biomasarako aplikazio berriak garatzeko modua ematen. Animalien elikaduran, digestioa errazten du, eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten. Ongarri gisa, ondorio oso interesgarriak ditu nekazaritzarako, adibidez, ura hobe atxikitzen du, nutrienteen oreka hobetzen du, eta lurzoruan dauden kutsatzaileak desaktibatzen.

LANA. BEGUR proiektua “Proiektuaren mamia da zur-hondakina (zerrautsa) aprobetxatzearen bideragarritasuna aztertu eta, hartara, hiri-altzarietako edo bestelako elementuak fabrikatzeko erabiliko den balio erantsi handiko material berri bat sortzea. Horretarako, zuraren zati txikiena baliatuko da WPC plastiko-zurezko konposate bat lortzeko, zurezko zuntz finak polimero plastiko eta gehigarriekin estrapatuz. Era horretan, material plastikoaren %50a zurezko produktuekin ordezkari daiteke”.

MAIER. BIO4SELF (H2020) “Bioplastiko autoindartua garatu eta baliarazi (bioplastikozko matrizea + bioplastikozko zuntzak). Helburua da beira-zuntzez indartutako termoplastikoa kentzea eta, trukean, PLA autoindartua jartzea, produktuaren jasangarritasuna hobetuz, birziklagarritasunari dagokionez (material bakar bat). PLA bioplastiko bat da, landare-jatorriko azido polilaktikoa. Horretarako, goi-tenperaturako fusioko PLA bat eta behe-tenperaturako fusioko PLA bat garatzea bilatu da (70 °C-tik gorako aldeaz), hura indartzeko.

MARIA DUOL “Badira 28 urte kalitate goreneko eta printzipio aktibo naturalez egindako produktu kosmetikoak diseinatu, produzitu eta merkaturatzen ditugula. Ikerketaren zorrotasun zientifikoa eta teknologia-garapena uztartzen ditugu, baita pertsonen azal-osasunaren zainketa ere, horretarako gai aktibo natu-

ralen erabileran oinarrituz. Era horretan, kosmetikaren merkaturak dibertsifikatzen dugu askotariko produkzio-jardueren bitartez, bio produktuen sorta batez, adibidez, mahats-pipitetan dagoen Resveratrolaren ahalmen antioxidatzailea eskuratzearen bidez naturaren propietateak baliatuz.

PAPRESA Birziklatutako eta birjina den zelulosa zelulosazko pastaren nahasketatik abiatuta ehun-zuntzaren ekoizpena aztertzeke proiektu pilotoa. “Helburua da teknologia bat probatzea eta ezartzea, petroliotik eratorritako materialak ingurumenarako eta ekonomiarako modu hobean ordezkari ditzaketen ehunezko material berriak sortzean, baso-jatorriko zelulosa-orea erabiltzeko, bai birjina, bai paperetik, kartoi erabiltzeko edo zuretik birziklatua. Proiektu honen berariazko interesa da beste herrialde batzuetan dagoen prozesu hori EAEan dagoen materiala eta zelulosaren ezaugarrietara egokitzea. Abantailak eta desabantailak identifikatzeko”.

SKFK “Moda etikoko bere sorkuntzetan, bertakoak eta jasangarriak diren materialak lehenesten ditu. Alde horretatik, zelulosa-jatorriko zuntzek, adibidez, Lyocellak (gehienetan Tencel deituak), lehentasuna dute markarentzat. Hainbat abantaila eskaintzen dituzte: iraunkortasuna, moldakortasuna, testura eta, gainera, abegitsua da ingurumenarekin. Lyocellari, zelulosa edo zur-orean oinarrituta egindako material naturalari esker, bete egiten dugu Euskadin %100 egindako arropa jasangarriak produzitzeko helburua”.

SMURFIT KAPPA “Paperezko produktu berri bat garatu eta patentatu dugu: AgroPaper®. Pinu-zuntzez fabrikatua, lehengai berriztagarri eta %100 biodegradagarria da, nekazaritzako lur-estalki gisa erabiltzeko diseinatu, plastiko beltza ordezkatzeko. Era horretan, eragotzi egiten dugu belar gaiztoak haztea, eta landarea garatzea sustatzen; haren balio erantsia da laborearen amaieran ez dela beharrezkoa kentzea, birrindu egin baitaiteke, eta lurragai organikoa gehitu. Nekazariei denbora eta kostuak aurrezten dizkiegu, eta ez dugu hondakin plastikoz lurra kutsatzen”.

• Bioekonomiaren Euskal Aliantzarekin bat egiteke deia
Eusko Jaurlaritzak dei egiten die Euskadiko enpresa sentikor eta konprometuei esperientziak bateratzeko eta sektore honetan ere lan egiteko aukera baliatzeko. Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila sentsibilizazio-kampaina batean dabil produkzio-eremu guztietatik Aliantza honi atxiki dakizkion. SPRI, EVE, HAZI eta Neiker ere lan egiten ari dira, Euskadiko enpresek bioekonomiaren aukera-nitxoaz ohartu daitezen.
Euskaraz: www.euskadi.eus/bioekonomia

• Bioekonomia bultzatzeko Laguntza Programa
2018tik, Eusko Jaurlaritzak 600.000 euro bideratu ditu, 300.000 urteko, baso-bioekonomia gaietan probako berrikuntza-proiektuak sortzea bultzatzeko. Laguntza horietan kokatuta, 6 proiektu onartu dira, hiri-altzariak sortzeko zuraren azpiproduktuak baliatzetik hasi eta ehun-zuntzaren produkzioeraino, zelulosa birziklatutako ore-nahasketan oinarrituz. 2020an, bioekonomia-estrategia garatzen jarraitzeko eta laguntza-ildo hori sendotzeko, 1.000.000 euro gehiago inbertituko dira.

• 2020: mugarri garrantzitsuak

BIOESKUALDEEN FACILITYA. Martxoan, EFIk, European Forest Institutek, Euroeskualdeen Facilitya jarriko du abian. Bada, proiektu horretan Euskadik hartuko du presidentetza eta Karelia Iparraldeak (Finlandia) eta Westfaliak (Alemania) parte hartuko dute. EFIk proiektu hau irekiko die interesa edukiz mandatu argi bat eta bioekonomia-arloko plana duten Europako eskualdeei bakarrik. Eskozia eta Austria Beherea ere interesatu egin dira. Eskualde arteko lankidetzak horrek funtsezko lau oinarri izango ditu:

Berrikuntza. Bioekonomian berrikuntza babestea, hura abiarazi eta handitzen joateko programa eta gertaera espezifiko-en bidez.

Erakunde publikoak. Esperientzien elkartrukea, zientziaren bitartez informatutako politikak eztabaidatuz, biologia-oinarria duten produktueterako merkatuak sortzen laguntzeko.

Eskualdeko azpiegiturak eta enpresa-ekosistemak. Kasu arrakastatsuen inguruan sentibilizatzea, eragile garrantzitsuak harremanetan jartzea, eta aldagetak erraztea.

Inbertsioak. Eskualdeak eta uneko elkarte publiko-pribatuak harremanetan jarri, eta ETE, pertsona ekintzaile, inbertitzaila eta politikako arduradunen arteko elkarriketak erraztuz.

SUMMIT. Udaberrian, lehen Bioekonomiaren Berrikuntza eta Ekintzailetzaren Nazioarteko SUMMITa egingo da Euskadin. Topaketa horren helburua da Europako bioekonomia-gaietako berrikuntza nagusiak erakustea, teknologia-zen-troen eta bioekonomiako erreferentziazko unibertsitateen, enpresa liderren, capital venture direlakoen, start-upen eta eragile erabakigarrien bitartez.

Bioekonomiaren Euskal Aliantzaren konpromisoak

1. BEA bioekonomiara bidean jartzeko bultzatza indarra izango da, eta eredu horretan produkzioa baliabide biologikoetan oinarrituko da, eta produktu berritzaileak sortuko dira.
2. BEA partaidetza publiko-pribatuari irekita dago, eta atxikitze sistema bat bideratuko du www.euskadi.eus webgunean, elkarlanean aritzeko prest dauden enpresa eta proiektuen sarea zabaltzeko
3. BEAk aholkularitza-batzorde bat izango du, tokiko eta nazioarteko ordezkari-ekin.
4. BEA osatzen duten erakunde publiko, pribatu eta enpresak lankidetzan arituko dira bioekonomia bultzatzen eta sortzen, ekonomia-eredu horren inguruan ekonomia- eta enpresa-jarduera hazteko.
5. BEAk ikerketa, berrikuntza eta ezagutza aurreratua bultzatuko ditu gaitasun teknologikoak indartzeko, Basque Research and Technology Alliance-ren parte-hartze aktiboarekin
6. BEA zaintza aktiborako eta nazioarteko bokazio argi batez sortu da, Euskadiko bioekonomiaren aldeko estrategia hobetzeko inspirazio-iturri izan daitezkeen erreferentziazko joerak eta arrakasta-kasuak aztertuz eta ezagutuz.
7. Aldi berean, BEAk nazioarteko sare bat sortzen lagunduko du, berritzaileak diren proiektu estrategikoetan parte hartzeko helburuaz.
8. BEA eragile aktiboa izango da dibulgazio- eta sentibilizazio-ekintzak sustatzen; haien bitartez, zabaldu egin nahi da eredu honen garrantzia, sortzen dituen aukeretan sakondu, eta enpresa-sareak lortutako emaitza berriak ezagutzera eman.



Euskadiko bioekonomiaren bide-orriko printzipioak

Kontsumo eta ekonomiaren hazkunde etengabeak, aurreikusitako demografiaren hazkundera lotuta, agerian utzi dute natur baliabideak agortu egingo direla eta hondakinen krisi handi bat izango dela. Gainera, klima-aldaketaren ondorioek larritu egingo dute gure biodibertsitatearen galera. Horretaz guztiz jabetuta, Eusko Jaurilaritzak, energia-efizientzia, energia berriztagarriak sustatuz edo, are, mugikortasun jasangarria bultzatuz garapen jasangarria sustatuko duten neurriak eustearaz gain, ikusi du beharrezkoa dela bioekonomiaren inguruko jardunak areagotzea, Euskadiko enpresa eta ekonomiarako interesgarriak diren aukerak irekiz. Alde horretatik, Eusko Jaurilaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, enpresa-talde batekin lankidetzan, **Bioekonomiaren Euskal Aliantzaren (BEAren)** sorrera sustatu du. BBEA ekonomia dibertsifikatzeko beharrezanean erantzunez sortu da, baliabide biologikoen erabilera oinarritutako eredu baten alde.

Europako bioekonomiak dagoeneko 18,6 milioi pertsona baliatzen ditu Europan, eta 2,3 bilioi euro. Alegia, Europako ekonomia osoaren %9. Benetan, zenbait herrialde, hala nola Finlandia edo Alemania, ekonomia-eredu horretarako trantsizio erreala eta oso argia egiten ari dira, eta Euskadik ere noranzko horretan jokatu behar du eta dezake.

Euskadin, zura da natur baliabide hedatuena eta baliatuena bioekonomia eraldatu eta sortzeko. %55eko baso-azalera dugu, Europako batez bestekoa baino askoz gehiago (%40).

Beti ere, Euskadin aukera ekonomiko horrek duen egungo balio eta ahalmenaren estimazio bat egiteko lehen urratsa da egun bioekonomiatzat jo ditzakegun sektoreak eta “biologiara moldatu” daitezkeenak identifikatzea, eta hurrengo urteetan bioekonomiarantz aurrera egitea.

Egungo errealitatea eraldatuz, **Euskadi lehiakorragoa eta jasangarriagoa** lortuko dugu, munduari askoz irekiagoa, kanpoaldeko ikuspegiak geure eginez eta gure garapenak beste leku batzuetara eramanez.

Eraldaketa horri heltzeko, talentuan, ikerketan eta berrikuntzan inbertitu behar da. Apustu irmoa da, lankidetzak publiko-pribatuaren oinarritua, eta teknologia-arloko eta sektoreko eragile eta enpresek elkar hartuz sare-lanean garatuko da.

Egoera hori ikusita, baterako sorkuntzan, eztabaidan eta soluzio kolektiboen bilaketan ahalegintzea beste aukerarik ez dago. Gizartearekin eta enpresa erabakigarriekin konektatzean dago gakoa, negozio-eredu berriak, jasangarri eta lehiakorragoak, sortzera eramango gaituen eraldaketa batera heltzean.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurilaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak areagotu egin du bioekonomian oinarritutako ekonomia- eta enpresa-ereduaren aldeko apustua, eta bere egiten du, lehen enpresa-taldearekin batera, **Bioekonomiaren Euskal Aliantzaren** oinarri eta konpromisoak.

Aliantza horren eraketa enpresa-talde batekin abiatu da, arrakastakasuak baitituzte, dela haien produkzio-sistemetan aplikatuta, dela merkaturatzeko fasean.

Ekimen hau erakunde publiko, enpresa eta erakunde gehiagori irekia da; horretarako, horiek, lankidetzan aritzeko prestasuna agertzeaz gain, bioekonomiari lotutako proiektu edo ekimen bat gehitzeko moduan egon behar dira.

Lankideen sare horrek aholkularitza-batzorde bat izango du, gaian adituak diren tokiko zein nazioarteko pertsonak osatua, eta berak eramango du Euskadiko bioekonomiari buruzko bide-orriaren ibilbide eta erritmoaren gidaritza; haren idazkaritza Teknikoa, berri, HAZI Fundazioak hartuko du. Aliantza honetan interesa duten enpresa eta erakundeek www.euskadi.eus webgunearen bidez bat egin ahal izango dute harekin, 2020ko urtariletik aurrera.

El World BioEconomy Forum 2019 aplaude los avances en la política transversal de bioeconomía de Euskadi

texto y fotografía A. E.



“La estrategia de Euskadi en bioeconomía se basa en desarrollar políticas transversales, creando una cadena de valor no sólo en el marco del sector forestal maderero, sino involucrando a otros sectores como la Industria, Energía o Química para transformar áreas como la industria petroquímica, la textil, la construcción o la alimentación a través de la innovación.”

El viceconsejero de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria del Gobierno Vasco, Bittor Oroz, intervino en la segunda edición del *World BioEconomy Forum* que entre los días 11 y 13 de septiembre se celebró en Ruka (Finlandia), donde presentó los avances de Euskadi en torno a la bioeconomía forestal. Además de Euskadi, participaron en este foro expertos en bioeconomía de todo el mundo, que debatieron cuestiones como el mejor modo de implementar bioestrategias, el papel de la bioeconomía forestal ante el cambio climático o la importancia de la producción basada en materias primas biológicas.

La hoja de ruta de la bioeconomía forestal en Euskadi expuesta en este foro destaca la necesidad de fomentar la generación de nuevas oportunidades de valor añadido basadas en el uso de recursos biológicos y procesos productivos sostenibles, recordando que Euskadi cuenta con los elementos necesarios para acometer con garantías la transición hacia la bioeconomía. En palabras de Oroz: “Disponemos de 396.700 hectáreas de superficie forestal, el 55% de nuestra superficie. El sector forestal representa el 1,53% del PIB de Euskadi y da trabajo a casi 20.000 personas. Tenemos la capacidad de movilizar y transformar esa madera y de hacer una transición hacia modelos de negocio basados en la bioeconomía forestal, generando un nuevo modelo de economía y nuevos productos”.

La estrategia de Euskadi en bioeconomía se basa en desarrollar políticas transversales, creando una cadena de valor no sólo en el marco del sector forestal maderero, sino involucrando a otros sectores como la Industria, Energía o Química para transformar áreas como la industria petroquímica, la textil, la construcción o la alimentación a través de la innovación. Esto per-

mitiría mejorar la competitividad de los citados sectores en la demanda interna y avanzar en estrategias de exportación e internacionalización y hacerlo de forma más sostenible. Euskadi apuesta por el desarrollo de una estrategia de Bioeconomía en Europa basada en la acción de las regiones. En la estrategia de bioeconomía forestal del Gobierno Vasco se incluyen desafíos económicos y sociales como la creación de BASOTEK, que impulsa la competitividad del sector forestal-madera mediante proyectos de valor añadido. El objetivo es transformar el sector en términos de competitividad y sostenibilidad y participar en proyectos de excelencia o de alto contenido innovador.

En Euskadi son ya realidad proyectos de bioeconomía forestal en los que colaboran agentes como los centros tecnológicos NEIKER o Tecnalia junto a empresas privadas. Así por ejemplo:

- El proyecto Biochar (carbón vegetal obtenido de restos vegetales y de residuos de biomasa). Gracias a este proyecto se investigan usos innovadores para este producto, que podría servir como aditivo para piensos y para mejorar suelos.
- El proyecto Poliol (química verde), produce materiales basados en serrín de madera que permite crear poliuretanos naturales que se pueden usar para aislantes en construcción, adhesivos sostenibles, resinas, etc.
- Proyecto para estudiar la viabilidad del uso de pulpa de madera de los bosques de Euskadi como una nueva materia prima local para crear productos textiles. El cual permitiría diversificar la cartera de productos forestales y valorizar los residuos de la cadena de papel, mejorando así la competitividad del sector forestal, papelería y textil de Euskadi.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko mahastizaintzako eta ardogintzako sektoreari laguntza emateko estrategia indartuko du nazioarteko merkatuaren zailtasunen aurrean

testua eta argazkiak N. H.

Donald Trump Ameriketako Estatu Batuetako presidentek mahastizaintzako eta ardogintzako produktuei ezarriko dizkien zergen iragarkiak eragin duen ardura ikusita, eta, halaber, Brexitak ekarriko dituen ondorioek eragiten duten zalantza-egoera aintzat hartuta, Arantxa Tapia sailburuak bilera izan zuen Euskadin mahastizaintza eta ardogintza sektoreko ordezkariekin.

Ministerioarekin izandako bileraren berri eta Madrilen har daitzkeen neurrien berri eman ondoren, Eusko Jaurlaritzak sektoreari iragarri zion ARDOA, Basque Wine Office – Euskadiko mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorearen bikaintasunerako laguntza-bulegoa abian jartzeko garatutako lanaren erritmoa bizkortu duela. Bulegoaren lana izango da Arabako Errioxako eta Txakolinaren hiru izendapenetako bodegek nazio-, estatu- eta nazioarte-mailetako merkatuan abian duten estrategia sendotzea. Era berean Jaurlaritzak neurri berriak hartuko ditu nazioarteko merkatuaren zaitasunei aurre egiteko. Helburua da euskal bodegen berezitasunaren eta kalitatearen aldeko apustu argia egitea eta, horretarako, egiteko modu hori sustatu eta babestea, munduan zabaltzeko aurkezpen-txartel gisa.

NEURRI ZEHATZAK

1. Estatu Batuetako merkatura egiten diren esportazioak mantentzeko jarduerak

Caprice I

- “CAPRICE-Chill with an appetiser with European wine and quality products” programarako birdefinizioa proposatzen da. 2020-2021 aldian aurreikusita dago 700.000 euroko inbertsioa egitea Estatu Batuetan, bertako merkatuan, besteak beste, 3 Jatorri Izendapenetako txakolinak sustatzeko. Muga zergak jar-tzeak justifikatu egingo luke birprogramazioa.

Caprice II

Caprice II proiektu berria idazten hasten proposatzen da, Arabako Errioxako ardoak sartuta eta Estatu Batuetako merka-tuan zentratuta. Proiektua Batzorde Europarraren Kontsumi-tzaileen, Osasun, Nekazaritza eta Elikadura Agentzia Exe-kutiboan (CHAFEA) diru laguntza programan aurkeztuko da, horren bitartez laguntzak ematen baitira barne merkatuan eta hirugarrenen herrialdeetan nekazaritza produktuen informazioa eman eta sustapena egiteko, 2021-2023 aldian.

2. Merkatuen dibertsifikazioa

• **Barne merkatuan sustatzea**

Proposamena da gure ardoek euskal merkatuan duten pre-sentzia sendotzea Euskal Ardoak Sustatzeko Kanpainaren bitar-tez, horretarako salmenta tokietan eta ostalaritzan publizitatea eta sustapen jarduerak eginez, Ostalaritza Elkarte, Sukal-daritza Eskolen eta BCC zentroaren laguntzarekin.

• **Estatu Batuak ez diren kanpo merkatuetan sustapena egi-tea**

Estatu Batuetakoa ordezkari dezaizuten merkatuetan gure ardo-en presentzia sendotzea proposatzen da, Europan (Suitza, Norvegia, Suedia...) presentzia handitzeko ahalegin gehigarria eginda. Europar Batasunaz kanpoko merkatuetan gure ardoen presen-tzia sendotzea proposatzen da, azkenaldian egin diren merkata-ritza hitzarmenak (Kanada, Asia – PROWEIN ASIA) baliatuz. Horretarako, egun indarrean dauden jarduerak erabil daitezke (Caprice programa Japonian, Arabako Errioxako ardoari eskaini-tako jarduera osagarriekin sendotuz) edo Kanadako merkata-rentzat berariazko programa prestatuz, gure edari esangura-tsuenak erabiliz.

Euskal upategiek azoketan duten presentzia indartuko da:

- VINISUD – Montpellier
- PROWEIN – Düsseldorf



El Gobierno de Euskadi apoya la forma de producir y la cultura del vino existentes en Rioja Alavesa y en el resto de comarcas vitivinícolas vascas, que han sabido posicionarse en los mercados más exigentes, y que hoy miran con preocupación el momento de incertidumbre que se vive a nivel global, con frentes como el de los aranceles o el Brexit, que puede afectarles directamente.

- LONDON WINE – London
- ANUGA – Colonia
- GOURMETS – Madril
- FENAVIN – Ciudad Real

Azoka berriak: PROWEIN ASIA (Hong Kong-Singapur), BARCELONA WEEK WINE. Ardogintzako eta gastronomiaren sektoreko profesionalen eta nazioartean hautatutako erosleen artean bi urtean behin negozio eta networking Foroa egingo da Euskadin. Helburua da maila handiko ekitaldia sortzea, Arabako Errioxako eta Txakoli Basque White Wine negozioei laguntzeko eta Euskadiko gastronomiarekin sinergiak sortzeko errepu-tazioan.

3. Alderantzizko misioak

Programa berri bat implementatuko da upate-giek inportatzaileak ekar ditzaten alderantziz-ko misioan. Programak “Lehiatu Ardoa” du izena eta 300.000 euroko aurrekontua. Programa hori aurki jarriko da martxan.





4. Indartze jarduerak laguntza publikoetan eta inbertsioetan

- **Inbertsioak:**
 - Ardoaren Merkatuen Antolaketa Komuna (OCM), zeinak 4,5 milioiko aurrekontua izango duen Euskadiko upategientzako.
 - “ARDOA inbertsioak”, programa berria, Ardoaren OCMak babestu ez dituen upategientzako, 2 milioiko aurrekontuarekin.
 - Elikagaien industriari zuzendutako diru-laguntza programak SENDOTU eta HAZILUR (10 miloi euro baino gehiago).

- **Sustapena:**
 - OCM Sustapena Europar Batasunaz kanpoko sustapen programetzako, 8 milioi euroko aurrekontuarekin Euskadiko upategientzat.
 - Lehiatu Sustapena (500.000 euro).

- **Kudeaketa:**

Proposamena da upategiei laguntza zerbitzua eskaintzea, digitalizazioan aurrera egiteko aholkularitzan, marketinean, esportazioan, kudeaketan eta abarretan laguntza jaso eta euren eraginkortasuna eta kostuak hobetzeko produktu lehiakorragoak lortuz.

ARDOA Basque Wine Office

Bulegoak bere jarduketa-eremua HAZI fundaziotik zabaldu du, lau ardatzetan:

- Aholkularitza teknikoa eta enpresariala: Horretarako, honako jarduketa hauek beteko ditu:
 - Oinarrizko ekintzailetzarako eta ekintzailetza aurreraturako arreta integrala.
 - Orientazioa eta laguntza ardoaren MAEren ondoriozko arauketan, eta BREXITaren esparruan eta AEBren zerga-politikaren esparruan sortzen diren egoera berrien inguruan.
 - Aholkularitza digitalizazio-prozesuak ezartzeko.
- Prestakuntza, berrikuntza eta ikerketa, think-tank bezalako analisi-tresna iraunkorren bidez, besteak beste, eta ideien laborategia sortzea. Lanbide-trebakuntza egokitzeko prestakuntza-programazio berezia garatzea.
- Nazioartekotzea (aurrez aipatutako neurriak 1,2,eta 3 ataletan).
- Finantzaketa (aurrez aipatutako neurriak 4 atalean). Azkenik, laguntzarako kanpo-organoa sortuko da, Nazioarteko Aholku Batzorde gisa, Hausnarketarako eta Proposamenetarako Foro izan dadin; hura nazioartean erreferentziala izango da ardoaren eta gastronomiarekiko harremanaren eremuan.

8,5 millones de euros para acciones de promoción exterior de productos vinícolas

texto y fotografía A. E.



El Gobierno Vasco ha aprobado ayudas para acciones y programas de información y promoción en terceros países de productos vinícolas que se desarrollen entre el 1 de mayo de 2020 y el 30 de abril de 2021. Se estima que el gasto por parte de las empresas para la campaña 2020-2021 sea de 21 millones de euros, ligeramente superior al ejercicio anterior, de los que algo más de un 40% (8,5 millones), procederán de fondos públicos. Desde el año 2016, un total de 139 empresas se han visto beneficiadas por estas ayudas. Las inversiones realizadas han superado los 68,2 millones, de los que cerca de 32,3 han correspondido a subvenciones.

Aumentar la competitividad

El objeto es potenciar la promoción del vino más allá de nuestras fronteras y facilitar las inversiones en el sector, para mejorar la adaptación a las demandas del mercado y aumentar la competitividad y el rendimiento global de estas empresas, parte esencial del sector agrolimentario vasco y, por tanto, de la economía de Euskadi en general. El apoyo a las acciones de promoción exterior es especialmente impotante en la presente coyuntura, dada la incertidumbre planteada por el Brexit y los aranceles norteamericanos. Según datos sobre el comportamiento de las exportaciones de los vinos vascos a lo largo de los seis primeros meses del año, destaca el incremento tanto en volumen como en precio de las ventas de vinos blancos, cada vez más demandados en el mercado internacional. Sus exportaciones aumentaron tanto en volumen como en valor. Especialmente buena fue la evolución de estos vinos en mercados tan importantes como Canadá, Estados Unidos, Irlanda y Reino Unido, donde se mantienen a pesar de la incertidumbre pre-Brexit.

Desde el Gobierno Vasco se viene trabajando intensamente para promocionar el posicionamiento de los productos alimentarios de calidad, entre los que el vino ocupa un lugar destacado, en la gama media alta del mercado, buscando satisfacer las necesidades de un consumidor exigente e informado. Las empresas también están realizando un importante esfuerzo en este sentido, trabajando en la calidad y la diferenciación de su producto, para lo que cuentan con apoyo tanto institucional como organizativo y financiero.

Estas líneas de apoyo están recogidas en el Plan Estratégico de Gastronomía y Alimentación (PEGA), entre las ayudas destinadas concretamente al sector vitivinícola destacan la puesta en marcha de ARDOA Basque Wine Office, así como diversas actuaciones para mantener las exportaciones al mercado estadounidense y para diversificar mercados, tales como el refuerzo de las misiones inversas y de la participación en ferias internacionales.

Apoyo financiero

Entre las ayudas de tipo financiero, destaca la que se ha aprobado hoy, destinada a programas de información y promoción en terceros países de los siguientes productos: vino, vino de licor, vino espumoso, vino espumosos de calidad, vino espumosos aromático de calidad, vino de aguja, vino de aguja gasificado, vino de uvas pasificadas, vino de uvas sobremaduradas, y vinos procedentes de la producción ecológica. Estos productos deberán contar con posibilidades de exportación o de nuevas salidas comerciales en terceros países y estar destinados al consumo directo. Además, deberán pertenecer a alguna de las siguientes categorías: vino con Denominación de Origen protegida, vino con Indicación Geográfica Protegida, o vino en el que se indique la variedad de uva de vinificación. Las acciones y actividades subvencionables son:

- Relaciones públicas y medidas de promoción y publicidad que destaquen en particular las ventajas de los productos comunitarios en términos de calidad, seguridad alimentaria y respeto al medio ambiente.
- Participación en manifestaciones, ferias y exposiciones de importancia internacional.
- Campañas de información, en particular sobre los sistemas comunitarios de denominaciones de origen, indicaciones geográficas y producción ecológicas.
- Estudios de nuevos mercados, necesarios para la búsqueda de nuevas salidas comerciales.
- Evaluación de los resultados de las medidas de promoción e información.



Eusko Labela duen abelgorri-okelak 25 Urte bete ditu

testua eta argazkiak H. F.

Euskal Okelak 25 urte bete ditu. Urtemuga berezi hori ospatzeko, Hazik eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako ekitaldi bat egin zen Donostiako Kursaal jauregian. Omenaldian, aintzat hartu zen berme-marka hori kontsumitzaile guztien artean bikaintasun-erreferentzia bihurtu duten pertsonen ahalegina eta ardura. Zigilua 1994an sortu zen, Eusko Labela duen abelgorri-okelaren jatorria eta kalitate bikaina egiaztatzeko.

Arantxa Tapia, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua, izan zen ekitaldiaren buruan, eta zeregin horretan lagun izan zituen Bittor Oroz, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea eta Hazi Fundazioaren presidentea, eta Asier Arrese, Haziren zuzendaria. Agintari horiek entregatu zizkieten diploma oroiga-

riak omendutakoei. Sektorre guztiaren ordezkari gisa oholtza gainera igo ziren hain zuzen ere hoanako pertsonak: Miren Itxaso Zelaia Zorrila, Jesús Odriozola Agirrezabal eta Iñigo Monasterio Gonzalez harakintak eta José Angel Uzkudun Manterola, Asier Aristi Otamendi eta Enrique Iribarria Arguijo ganaduzaleak. Gainera, lehen sektoreko eta Euskadiko instituzioetako ordezkariak zabala bildu zen ekitaldian; bertan izan ziren okelaren sektoreko ordezkariak, baita Eusko Label markak barnean hartutako sektore eta produktuetoako ordezkariak ere, 15 guztira.

Euskal Okela

Euskal Okela da Eusko Label berme-marka duen haragi bakarra. Marka horren bidez, okelak jatorriari, animalien hazkuntza-baldintzei eta elikadurari buruzko kalitate-parametro zorrotzak betetzen dituela bermatzen da. Kontrol osoko sistema horrek ekoizpen- eta banaketa-prozesu osoa aztertzen du, azken kontsumitzailearengana iritsi arte, eta hala bihurtu da konfiantzako eta kalitateko ezinbesteko erreferentzia harentzat. Horren erakusgarri, 1996an «behi eroen» kasuek sektorean piztutako krisia saihe-

tu ahal izan zuen Euskal Okelak. «Osasungarria, zapoetsua eta naturala» lelopean, Eusko Labela zuen abelgorri-okela konfiantza osoko balio segurua bihurtu zen euskal kontsumitzaileentzat. Eusko Labela duen okelak –eta, hedaduraz, Euskadiko lehen sektore osoak– 25 urte hauetan lortutako mugarri nagusietako bat Adierazpen Geografiko Babes-tua (AGB) bereizgarria lortzea izan da. Europar Batasunak 2004an eman zion, sektoreak sei urtez izapidetzeko ahalegin handia egin eta gero.

Jasangarritasun-bermea

Euskal Okelak ikuspegi askotatik egiten dio jasangarritasunari ekarpena: lehenik eta behin, alderdi sozioekonomikotik. Eusko Labela duten produktuak erosita eta kontsumituta, baserriarrek, abeltzainek, ekoizleek, eta harakindegietako, hiltzietako eta zatitze-geletako langileek osatutako ekoizpen-sare osoari ematen zaio bultzada eta balioa. Enplegua eta

ekonomia sustatzen duen jarduera bat da, eta, gainera, bikaintasuna lortzeko lankidetzan aritzen diren talde horien lanak gure landa- eta natura-ingurunearen biodibertsitateari eta orekari eusten laguntzen du.

Euskal Okela baimendutako harakindegietan saltzen da soilik. Saltoki horiek erraz identifikatu daitezke, «K» ikurra erakusten dutelako Eusko Labelaren adierazgarri; hala ziurta daiteke bertan saldu-tako behiek bete egiten dituztela Araudi Teknikoan eta Ziurtapen Prozedu-retan jatorriaren, osasungarritasunaren eta kalitatearen inguruan ezarrita dauden baldintza guztiak. Kalitate-markaren kudeaketak eragin onuragarria du ingurumenean ere. Abel-buruak modu tradizionalen hazten dira, Euskadiko baserrietan jaito eta zaintzen baitira, mimo handiz, bizitzako aro guztietan. Horrenbestez, animalien ongizatea bermatzen da, eta elikaduraren osasungarritasuna eta kontrola ziurtatzen: ez du

- EUSKAL OKELA ZIFRETAN (2018)**
- Erregistratutako abeltzainak: 783
 - Pentsu-fabrikak: 19
 - Eusko Label kanalak: 13.566
 - Eusko Label kg: 4.017.968
 - Baimendutako hiltzietak: 5
 - Baimendutako merkaturatzaileak: 8
 - Zaititze-gelak: 7
 - Baimendutako saltokiak: 415

antibiotikorik, bazka naturaletan oinarrituta dago (belar freskoa eta lehorra, saralea eta lastoa) eta HAZIk, Eusko Label produktuen kontrol eta ziurtapen organoak, berariaz onartutako pentsuen bidez osatzen da. Euskal Okela ohikoa baino kalitate handiagoa duelako nabarmentzen da; izan ere, baimendutako hiltzietan kontu handiz aukeratzen dira, bai animaliak (piriniotar arrazakoak betiere: limusin, blonda, terrefioa eta arre alpetarra), bai haien arteko gurutzaketak. Gainera, okela eraldatzeko eta ontziratze-ko prozesuan ere kontrola egiten da, teknikari espezialistek ikuskaritzak eta audiotoretzak egiten baitituzte; produktuen aukera kontrolatu, laginak bildu, eta analisiak egiten dira; eta administrazio-prozedura informatikoak daude instalazio, ekipo eta prozesu guztietarako eta produktuen beraren gainean.

Anthony Myint recibe el Basque Culinary World Prize 2019

texto y fotografías R. S.

El Prisma de Tabakalera de Donostia-San Sebastián acogió la ceremonia de entrega del Basque Culinary World Prize 2019 al estadounidense Anthony Myint, quien a través de la Gastronomía afronta uno de los retos más apremiantes de la sociedad: el cambio climático. Combinando investigación y herramientas prácticas, Myint colabora con restaurantes en todas partes del mundo para encontrar soluciones a medida que reduzcan su impacto medioambiental.



